

Herririk

Euskal Herrirako
pentsio sistema
publiko eta propiorantz

2024ko maiatza



LAB

AURKIBIDEA

0. Haritik tiraka	03
1. Pentsioen mapa Euskal Herrian	04
1.1. Pentsioak Hego eta Ipar Euskal Herrian	04
1.2. Euskal Herrian indarrean dauden pentsio sistemen arazoak	07
2. Euskal pentsiodunen lan eta bizi baldintzak	14
2.1. Euska Herriko pentsiodunak	14
2.2. Bizitzaren garestitzea	18
2.3. Zor patriarkala emakume* nagusien ikuspegitik	24
3. Pentsio sistema publiko eta propiorantz aurrera egiten	29
3.1. Eskuduntzetan eragin	29
3.2. Eredua aldatu oraingo pentsioak hobetzeko	32
3.3. Estatus politiko berrirantz aurrera egin	33
4. LABen aldarrikapenak	36
4.1. Murrizketak lehengoratu eta pentsio publikoak hobetu	36
4.2. Hemen lan egin, kotizatu eta erabaki	37
Eranskina: Lan Harrenamanak eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua: LABen eredia	39
1. Euskal Lan Kodea: enplegu duinik gabe ez dago bidezko pentsiorik	39
2. Euskal Herrirako Gizarte Segurantzza	41
3. Zaintzaren aitortza eta banaketa ekitatiboa	42

0. Haritik tiraka

Bizitzako momentu ezberdinetan modu espezifikoan eragiten diguten pobretzea eta prekarizatzea zabalitzen ari dira garai hauetan. Funtsezkoa da jendarte moduan hausnartzea nola antolatu nahi ditugun gure etorkizuna eta nagusien oraina. Honek eredu kapitalista, etnozida eta patriarkalaren muga kontzeptual batzuk apurtzea exijitzen digu pentsio sistemak berdefinitzeko.

LABen pentsatzen dugu premiazkoa dela **pentsio sistema publiko, solidario, kotizaziopeko eta banaketakoa eraikitzea**, lan harremanak eta babes sozialerako esparru propioa garatuz. Hau lortzeko benetako apustua egiteko unea da, benetako alternatiba bakarra delako Euskal Herriko langileei bidezkoa eta birbanatzailea izango den sistema bermatu ahal izateko, genero desparekotasunak konponduko dituen eta hemen bizi garenon errealitate espezifikoari erantzungo diena.

Lehen atalean, lehen aldiz aurkezten dugu pentsioen mapeo nazional bat, gure lurraldean inposatzen diren bi pentsio sistemen izaera pribatizatzailea nabarmenduz. Bigarren atala, berriz, zahartzen direnean langileen bizitzetan eredu hauek duten eraginaren erradiografia da.

Hirugarren atalean, LABen defendatzen dugun pentsio sistema publiko eta propioaren oinarriak zehazten ditugu, aldarrikapen honen bideragarritasuna eta garaikidetasuna aurkeztuz. Laugarren atalak, pentsio sistema zaharretik jendartea benetan demokratizatuko duen eredu berri baterantz joateko proposamenak jasotzen ditu. Azkenik, eranskinean, erretirorako eskubidea duintzeko gure eremuan sakontzen dugu, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren bidez.

Haritik honen helburua sindikatu honen diagnostiko eta proposamenak partekatzea da, azterketa kolektiboen ondorio direnak eta eztabaida politiko eta soziala zabaldu nahi dutenak. Etorkizunerako proposamenak eta gaur egun Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak zein Herri honetako gehiengo sozial eta politikoak dituzten premiei eta egiten dituzten aldarrikapenei erantzutera bideratutakoak jasotzen dira. Sarrera honetan, hiru nabarmendu nahi ditugu:

1. Pentsio sistemaren bidez ere soldata arrakalarekin amaitu eta zor patriarkala aitortzearen beharra. Horretarako, **alargun pentsioa zaintzagatiko pentsio konpentsatzaile bategatik ordezkatzeko** proposatzen dugu. Aldi baterako neurria, baina pentsio indibidualizatua bermatuko duena, familia-loturetatik independentea, eta gutxieneko zenbatekoa gutxieneko kotizaziopeko pentsioaren bestekoa izango duena (29. or.).
2. **Gutxieneko pentsio bermatu eta duinaren alde egiteko, Gizarte Segurantzaren kudeaketaren berehalako transferentzia, oinarrizko legeriaren garapena EAE eta Nafarroan eta aurrekontu publiko bidezko finantzazioa**. Orain iritsi behar da 1.080 euroetara, euskal Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarekiko erreferentzia zuzena bermatuz eta ez bizikidetz-unitate edo pobrezia indizeetan oinarrituz (30. or.).
3. **Enpleguari lotutako sistema osagarri publiko, unibertsal eta berbanatzailea bultzatzea**, baliabide finantzarioen kapitalizazio eta espekulazio irizpideetatik kanpo egongo dena eta egungo eredu osagarri pribatua ordezkatzeko duena (31. or.).

1. Pentsioen mapa Euskal Herrian

Euskal Herriak eta Euskal Herriarentzat pentsatutako pentsio sistema publiko baterantz aurrera egiteko, funtsezkoa da lurralde osoko pentsioen errealitatearen inguruko argazki panoramikoa izatea.

Asko dira Frantzia eta Espainiako Gobernuek gure herriaren errealitateari buruzko datu eta estatistikak lortu eta sortzeko inposatutako oztopoak. Informazio baliotsuak lirateke gure herrirako behar eta nahi ditugun politika publikoen eraikuntza bideratzeko eta horregatik, zifra hauetako batzuk aurkezten ahalegindu gara *Haritik* honetan.

1.1. Pentsioak Hego eta Ipar Euskal Herrian

Gure lurraldean dauden eredu administratibo ezberdinak kontuan hartuta, euskal langileek jasotako pentsioen ezaugarriak ere ezberdinak dira eta garrantzitsua da hauek ulertzea.

> Pentsio motak

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia		Lapuri, Behe Nafarroa eta Zuberoa	
<p>Kotizaziopekoak: Zenbatekoak langileek eta enpresek laneko bizitzan zehar egindako kotizazioen arabera zehazten dituzten prestazio ekonomikoak. Erretiroa, ezintasun iraunkorra edo heriotzagatik emandakoak dira (alargun eta zurtz pentsioak eta senideen aldekoak).</p>	<p>Kotizazio gabekoak: Kotizaziopeko prestazioa jasotzeko exijitutako gutxieneko kotizazio aldia lortu edo frogatu ezin izan duten eta bestelako diru-sarrerarik ez duten langileei zuzendutako prestazio ekonomikoak. Baliaezintasun eta erretiro pentsioak dira.</p>	<p>Derrigorrezko pentsioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizkoak: Langile bakoitzaren norbanako kotizaziotik eratorriak (<i>droits directs</i>). - Osagarriak: Oinarrizko pentsioa osatzen dute (<i>droits derives</i>). Izaera desberdinak dituzte, euren artean honezkero hilda dagoen bikotekidearen zatikia, enpresak kotizatutako kutxa berezi batetik datozenak edo sektore pribatuko langileek Agirc-Arcco pentsio osagarriaren kutxan kotizatzen dituztenak. 	<p>Hautazko pentsioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gehigarriak: Kapitalizazio bidez osatzen dituzte derrigorrezko pentsioak. Ezin duten pentsioaren zenbateko totalaren %5 gainditu.
<p>Azterketa gehienak kotizaziopeko pentsioen inguruak dira, langile guztiek laneko bizitza egonkorra izan dituztela eta kotizatu ahal izan dutela onartuz. Ulertzea ematen da kotizazio gabeko pentsioak salbuespena direla eta euren laneko bizitzetan porrot egin dutenei bideratuta daudela. Izan ere, Espainiako Gizarte Segurantzak kotizazio gabeko pentsioen inguruan argitaratutako datuak urriak eta opakoak dira.</p> <p>LABen badakigu hau ez dela kasualitatea. Alargun pentsioek eta kotizazio gabekoek enplegu duinerako eskubidearen urratze sistematikoa ezkututzen dute. Nagusiki emakumeei* eragiten die errealitate honek. Alde batetik, eurak izan dira eta</p>		<p>Laburbilduz, indarrean dagoen pentsio sistema publikoak hiru osagai ditu: oinarrizko pentsioa, pentsio osagarria eta pentsio gehigarria. Lehen biak derrigorrezkoak dira eta hirugarrena hautazkoa. Normalean, langileek bi kutxatan kotizatzen dute aldi berean: oinarrizkoan, banaketa printzipioaren arabera eta derrigorrezko osagarrian, puntu bidezko sistema bat jarraitzen duena.</p> <p>Garrantzitsua da esatea ez dugula pentsioen egoerari buruzko daturik Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan, eskuduntzarik ez dagoenez, ez dagoelako lurralde hauetako datu ofizial espezifikorik.</p> <p>Horregatik, <i>Haritik</i> honetan jasotako datuak Pirinio Atlantikoetako</p>	

<p>izaten jarraitzen dute bizitzaren zaintzen arduradun nagusiak aitortzarik eta ordaindu gabeko lanak egiten jarraituz. Bestetik, ezkutuko ekonomikaren zati handiena osatzen duen kolektiboa dira, arautu eta fiskalizatu gabeko eta ikusezin bihurtutako lanak egiten dituztenak. Kasu bietan, kotizatze eskubiderik ez duten langileak. Haritik honetan ezkutututako errealitate honen datuak ere islatzearen alde egin dugu.</p>	<p>Departamentuari dagozkionak dira, Ipar Euskal Herria baino eremu handiagoa hartzen duena. CARSAT erretiro aseguruak emandako datuak dira, 2020ari dagozkionak, eskura dauden bakarrak. Datu zehatzen faltan, Frantziako estatua osotasunean hartzen duten datu batzuk ere erabili dira, <i>Direction de la Recherche, des Études, de l'Évaluation et des Statistiques</i>-ek (DREES) 2023an argitaratuak eta 2021eko indizeei dagozkienak.</p>
---	---


> Pentsioen kopurua

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia

Kotizaziopekoak:

2023ko abenduaren 1eko datuen arabera, eta Gizarte Segurantzako erregimen guztiak kontuan hartuta, Hego Euskal Herriko kotizaziopeko pentsioak 718.788 dira, pentsio guztien %97,7. Motaren arabera banatuta, honakoa da emaitza:

Hego Euskal Herriko kotizaziopeko pentsioak, motaren arabera (2023)




Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantza, EUSTAT, NASTAT

Kotizazio gabekoak:

2023ko azaroko datuen arabera, 9.426 kotizazio gabeko pentsio daude Hego Euskal Herrian, pentsio guztien %2,3. Pentsio motaren bidez bereizten baditugu, honakoa izango litzateke emaitza:

Hego Euskal Herriko kotizazio gabeko pentsioak, motaren arabera (2023)




Iturria: IMSERSO

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa

Oinarrizkoak (*directs*): 159.108 (derrigorrezko pentsioen %97,5).

Osagarriak (*derivés*): 4.068 (derrigorrezko pentsioen %2,5).

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako pentsioak, motaren arabera (2020)



Iturria: CARSAT Aquitanie

> Pentsioen zenbatekoa

Euskal Herrian dagoen pentsio kopurutik harago, garrantzitsua da gaur egun duten **balio ekonomikoa** ezagutzea. Horretarako, egun indarrean dagoen pentsio motaren zenbatekoaren batezbestekoa aurkeztuko dugu hasieran, gogoratzuz honek ez duela adierazten pentsiodun bakoitzak hilabete amaieran jasotzen duena.

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia

Sistemak guztira dituen pentsioen zenbatekoen batezbestekoa (eurotan)



Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantza

Espainiako estatuak kalkulaturako batez besteko pentsioen ingurukoa errealitate larriak ezkututzen dituen datu estatistikoa da. Adibidez, Hego Euskal Herriko 200.000 pentsiodun baino gehiago ez da 1.080 eurotako pentsiora iristen. Hortaz, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, funtsezkoa da pentsioen batezbestekoa eta pentsiodunek benetan jasotzen dutena bereiztea, azken hauek askoz zenbateko apalagoak izaten baitira.

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa

Frantziako estatuan, erretiro-pentsioaren hileko batez bestekoa 1.530 euro gordin da, eta 1.420 euro garbi gizarte-kotizazioetatik datozenak, DREESek 2023. urtean argitaratutako datuen arabera¹. Zehazki, Ipar Euskal Herrian, datu ofizialek erakusten dute oinarritzko/derrigorrezko pentsioaren batez bestekoa hilean 1.400 euro eta 1.600 euro artekoa dela.

1.2. Euskal Herrian indarrean dauden pentsio-sistemen arazoak

Lana eta enplegua arautzea eta lan-harremanen eta gizarte-babesaren sistema eraikitzea funtsezko gaiak dira bizitza duina bermatzeko. Hala ere, Euskal Herriko lurralde-eremuetan gaur egun indarrean dagoen esparru juridiko-politikoak hain garrantzitsuak diren gai horiei buruz erabakitzeke eskubidea ukatzen die langileei.

Ilido horretan, EAEko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Hobekuntzak ez dute ahalmen hori, LABek salatu izan duen bezala. Urte askoren ondoren oraindik erabat garatu gabe dauden estatutuak dira, **transferitzeke dauden eskumenekin, besteak beste, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa.**

Hego Euskal Herrian, egungo pentsio-sistema publikoa Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren barruan kokatzen da, eta haren Konstituzioak (149.1.17 art.) zehazten du berau eta oinarritzko legeria garatzea Espainiako estatuaren eskumen eksklusiboa dela. Izan ere, 124/1989 eta 195/1996 Konstituzio Auzitegiko Epaiek "kutxa bakarraren" kontabilitate-kontzeptua ezarri zuten eskumen horiek babesteko eta handitzeko tresna gisa.

Hala ere, Gernikako Estatutuak zehazten du EAERI dagokiola Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzeko eta betearazteko eskumena (18.2 artikulua). Artikulu horrek eta Bosgarren Xedapen Iragankorrek esparru autonomikoari Gizarte Segurantzaren "kudeaketa ekonomikoa" esleitzen badiote ere, aurreikuspen hori ez da inoiz aplikatu.

Espainiako pentsio-sistema 1963an sortu zen, estatuak "gizarte-babeseko eredu bateratu eta integratua" ezartzeko Gizarte Segurantzaren Oinarrien Legea ezarri zuenean. Ustez, banaketako finantza-oinarria duen eredua da, kudeaketa publikokoa eta finantzaketan estatuaren parte hartzea duena. Lege horren aurretik, lehenik, gizarte-aseguruak zeuden, eta, ondoren, lan-mutualitateak. 1966an Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra onartu zen, 1967ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu zena indarrean.

Ipar Euskal Herrian, Frantziako estatuak inposatutako egungo pentsio sistema publikoa lanbide desberdinekin duen loturak markatutako bilakaera historiko baten emaitza da. XX. mendearen hasieran derrigorrezko mekanismo batzuk garatu ziren, eta 1945ean Gizarte Segurantzaren sortu zen, derrigorrezko zahartzaroko aseguru orokortuz eta banaketa-sistema gisa funtzionatuz. Pentsio-sistema bakarra proposatzen da langile guztientzat, euren erregimen propioetan balantze positiboak zituzten sektore profesionalentzat izan ezik.

¹ DRESS. *Les retraités et les retraites*. 2023.

Denborak aurrera egin ahala, "defizitarioak" ziren kutxa sektorialak "positiboak" zirenekin konpentsatuz joan dira, pentsio-sistema gero eta bateratuagorantz joz. Energia eta garraioen produkzioari lotutako sektoreetan, adibidez, langileek bateratze hori eragozteko lortu dute. Hala ere, kutxa txikienetan eta presio- eta negoziazio-gaitasun txikiaren dutenetan, erregimenen uniformizazioa nagusitu da.

Azkenik, zergen bidezko (CGS eta CRDS) finantzaziorantz joan den kotizaziopeko sistema da. Helburua enplegatuak emandako kotizazioa murriztea eta langileek ordaindutako zergak handitzea izan da. Estrategia horrek alde handia sortzen du enpresak langilearen erretirorako ordaintzen duenaren eta langileari hilaren amaieran banku-kontura iristen zaionaren artean. Honek ekartzen du, besteak beste, **mundu mailan, lanaren inguruko arrakala fiskalik handienetako egotea Frantziako estatuan.**

> Espainiako eta Frantziako estatuakotako pentsioen erreformak

Asko izan dira urteetan zehar Espainiako estatuak euskal langileoi ezarritako pentsioen erreformak. Hala ere, joera bera dago: batetik, **estatuaren esku modu eskusiboan dauden lurreko kotizazioen zentralizazioari eustea**, eta, bestetik, pentsio publikoak murriztea kapitalizazioeko pentsio pribatuaren sistemen garapena bultzatzeko, baita Bruselatik garatutako politika neoliberalerari erantzutea ere, betiere CEOEren eta CCOO eta UGT sindikatuen babesarekin.

Ilde horretan egin dira bi pentsio erreforma garrantzitsuenak: Zapateroren gobernuarena (2011) eta Rajoyren gobernuarena (2013). Bi erreforma horien bidez, pentsioa eskuratzeko baldintzak gogortu ziren eta prestazioen erosahalmena galdu zen. Pentsiodunen mobilizazioari eta kontrabotereko borroka sindikalari esker, IRP (Pentsioen Errebalorizazio Indizea) eta Iraunkortasun Faktorea bezalako neurriak indargabetzea lortu da.

Azken erreformak, Espainiako Diputatuen Kongresuak 2023ko martxoan onartutakoak, **2011ko erreformaren alderdi atzerakoiei eutsi die eta zenbait elementu okertu ditu. Horrela, erretirorako legezko adinak eta beharrezko kotizazio-urteek gora egin dute, eta pentsioen genero-arrakalak konpondu gabe jarraitzen du.**

Erreforma horren eraginak zehatzago aztertu genituen onartu zenean argitaratu genuen txosten batean² eta formula beraren parte da: arazo zaharrei adabakiak jartzea erretorika berriekin. Taula honetan ikus dezakegu Espainiako pentsio-sistemak ezarritako eskubide-atzerakada gero eta handiagoa:

² "Espainiako Estatuakotako pentsio erreformaren azterketa". LAB, 2023ko martxo.

Espainiako estatuko pentsio sistemaren garapena

	Erretirorako legezko adina	Gutxieneko kotizazio-aldia pentsioaren %50 jasotzeko	Gutxieneko kotizazio-aldia pentsioaren %100 jasotzeko	Pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko aldia	Pentsioaren zenbatekoa eguneratzeko metodoa
1985 aurretik	65 urte	10 urte	35 urte	Azken 2 urteak	Aldizkako errebalorizazioa soldaten batez besteko igoera, bizitzaren kostuaren indizea, ekonomiaren bilakaera eta Gizartze Segurantzaren egoeraren arabera
1985eko erreforma		15 urte (13 urte erreal)	35 urte	Azken 8 urteak	Errebalorizazioa urte bakoitzaren hasieran, urte horretarako aurreikusitako KPlaren arabera
1997ko erreforma				Azken 15 urteak	Errebalorizazioa urte bakoitzaren hasieran, urte horretarako aurreikusitako KPlaren arabera eta ondorengo doitzea hurrengo urtearen hasieran benetako inflazioa aurreikusitakoa baino handiagoa bada
2007ko erreforma					
2011ko erreforma				67 urte	15 urte erreal
2013ko erreforma	Igoera progresiboa 2027 arte	Aparteko pagak kentzen dira lan egindako egunen zenbaketatik		2026tik aurrera sistema duala. Bi aukeraren artean hautatu ahalko da: 1) azken 25 urteak 2) azken 29 urteak, 2 urte okerrenak baztertuz 2040tik aurrera: 29 URTE!	Pentsioen Errebalorizazio Indizea (IRP) arautzen du, KPlaren azpiko igoerak ahalbidetzen dituena
2023ko erreforma	Aldez aurretiko erretiroaren baldintzak gogortzen dira, berau berandutzeko helburuarekin				IRPa kentzen du. Aurreko 12 hilabeteetako urtearteko KPlaren batezbestekoak ordezkatzeko du

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako errealtateari dagokionez, kontuan izan behar da 1970eko hamarkadaz geroztik Frantziako estatuak eta botere ekonomiko handiek diskurtso interesatua sortu dutela, pentsioen sistema publikoa porrot eginda zegoela eta bideraezina zela esanez, nahiz eta urteetan zehar milioika euro pilatu Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsean, eta horiek Frantziako estatuko aurrekontu orokorreari dagozkien gastuak ordaintzeko erabili. Botere berberak behin eta berriz errepikatu dute eta errepikatzen ari dira pentsioen sistema publikoa bideraezina dela eraldaketa sozioekonomiko eta demografikoen ondorioz.

2023ko apirilean, Frantziako Konstituzio Kontseiluak pentsio-sistemaren azken erreforma onartu zuen. **Erreformatik 62 urtetik 64 urtera igo du erretiroa hartzeko gutxieneko adina, eta pentsioa kalkulatzeko epea 25 urtetik 30 urtera luzatu du 2030erako.** Gainera, auzitegiak atzera bota zuen erreferendum bat egiteko lege-ekimena, herri-erabakia aintzat hartu izan balu, erreforma bertan behera utz zezakeena.

Erreforma hori atzerapauso larria da Ipar Euskal Herriko langileen eskubideentzat; izan ere, urteak daramatzate kalera irteten erretirorako oztopo horiek eragozteko. Lege berria irailaren 1ean sartu da indarrean eta lan eskubideen garapen kontserbadorearen parte da.

Frantziako estatuko pentsio sistemaren garapena

	Erretirorako legezko adina	Pentsioen %100 jasotzeko gutxieneko kotizazio-aldia	Pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko aldia
1982ko erreforma	60 urte	37,5 urte	10 urte hoberenak
1993ko erreforma		40 urte	25 urte hoberenak
2003ko erreforma			
2010eko erreforma	62 urte 67 urte (gutxieneko kotizazio-aldira iristen ez bada)	41 urte	
2012ko erreforma	Aurreko erreformaren ondorioak 2018tik 2017ra aurreratzen ditu		
2014ko erreforma			
2023ko erreforma	64 urte 67 urte (gutxieneko kotizazio-aldira iristen ez bada)	43 urte	30 urte

> Pentsio pribatuen pisua eta BGAEen azken erreforma

Borondatezko Gizarte Aurreikuspenezko Erakundeak (BGAE) EAEko administrazio-eremuan aplikatzen diren pentsio-planak dira. Berezko izaera juridikoa dute eta, gainerako pentsio-plan pribatuek ez bezala, BGAE bat kontratatzen duen pertsona bazkide bihurtzen da. Kapitalizazio-sistema osagarri baten lege-garapenean oinarritzen dira, eta izaera unibertsala dute, nahiz eta aplikazioaren sektore-eremura mugatuta egon.


Ikuskapena Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta zehaztu du **gaur egun 26.000 milioi eurotik gorako ondarea biltzen dutela BGAEek**. 2022ko EAEko BPGaren %30 baino gehiago da hau.

BGAE motak, bazkideen izaeraren eta elkarren arteko harremanen arabera

Banakakoak	Enpleguak	Elkartuak	Berezi gabeak
Finantza-entitateak bazkide sustatzaileak dira eta pertsona fisikoak bazkideak. Finantza-produktu bezala funtzionatzen dute	Lan-harremana dago edo egon izan da kideen eta bazkide babeslearen artean. Entitatara sartzeko arrazoi nagusia, edozein kasutan, negoziatio kolektiboan edo enpresa-itunean lortutako akordioa edo enplegatzailearen alde bakarreko erabakia izango litzateke	Kideek elkarte bidezko harremana dute, ez lanekoa ez profesionala	Kideek lanekoa ez diren harremanak dituzte eta pertsonalak ez diren kontingentziak estaltzeko jarduerak egiten dituzte


EAEen, enpleguak lau BGAE esanguratsuenak Elkarkidetzak, Geroa, Itzarri eta Lagun Aro dira. Azken aldian enpleguak BGAEen bazkideen kopuruak behera egin du gora egin duen banakako BGAEen kopuruarekin konparatuz, baina **ondare handiena laneko errentei lotuta dago**. Honek esan nahi du kudeaketa pribatuaren esku dagoela euskal langileen aurrezkien zati handi bat:

Bazkide eta ondarearen banaketaren proportzioa, BGAE motaren arabera (2022-2023)



Iturria: Euskadiko BGAE Federazioa

Enpleguko BGAEak dituzten langileen proportzioa biztanleria okupatuarekiko (2022)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Finantza-Politikako Zuzendaritza

LABek enpleguko BGAEetan parte hartzea erabaki zuenetik 25 urte baino gehiago igaro direnean, balantzea gazi-goza da. Alde batetik, urte hauetan pentsioen sistema publikoak erreforma ugari izan ditu, sistema ahulduz eta langileei pentsio murrizagoak eskainiz. BGAEen bidez, askok erretiroan jaso ahal izan duten osagarri bat metatu dute. Bereziki, desgaitasunekin, kasu batzuetan laguntza handia eman baitiete langile horiei. Era berean, nabarmendu behar da langileen diruarekin egindako kudeaketa ona izan dela oro har, eta ez dela ustelkeria kasurik antzeman.

Hala ere, BGAEek ez dute lortu prestazio unibertsalak bermatzeko helburua, eta ez da lortu sistema osagarriaren bidez pentsioen sistema publikoa indartzea eta duintzea.

Horrela, langileen arteko asimetriak handitu dira euren diru-sarrera eta genero arrakalaren arabera, eta emakumeak* izan dira sistema osagarri mota hau eskuratzeko aukera txikiena izan dutenak. Ez hori bakarrik, prestazio gehienak kapital moduan kobratu dira, errenta izaera galduz eta eredu aurrezki funts eta finantza-produktu bihurtuz.

12/2022 Errege Lege Dekretua nabarmendu behar da, Espainiako Gobernuak enpleguko pentsio planak bultzatzeko onartua. Negoziazio kolektiboa zentralizatzeko tresna izatez gain, helburua da estatu osoan pentsio planak bultzatzea bereziki altuenak diren soldatei zergak gutxitzeko finantza-produktu bezala, eta kapitalizazio eredu garatzea banaketa publikoko ereduari alternatiba bezala. LAB eredu honen kontra dago guztiz.

Era berean, 2023an dekretu egitasmo berri bat aurkeztu zuen EAJk, BGAEen inguruko zenbait araudi aldatu nahi zituen. 2008ko krisi ekonomikoa dela eta plan hauek izan zituzten gabezia batzuk zuzentzean eta pentsio sistema publikoaren osagarri moduan balio izatean oinarritzen da argudioa. Sinetsarazi nahi digute pentsio sistema publikoa ez dela jasagarria.

Hala ere, definitutako ekarpenen eta inbertsioen definitu gabeko errentabilitatearen arabeko prestazioen sistemak ziurgabetasuna sortzen du pentsio osagarri horren bideragarritasun eta ziurtasunean. Pentsio publikoak laneko prekaritatea, soldata baxuak eta erosahaltenaren galeraren ondorioz okertzen ari diren momentuan, pentsio bidezko diru-sarreraren murrizketa konpentsatzeko sistema osagarrietara jotzea ibilbide laburrekoa da.

Gainera, dekretu proiektuak agerian uzten du zeintzuk diren aktibo hauen inbertsio-lehentasanak: segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispertsio eta kongruentzia monetarioa eta epeena. Finean, errentarik altuenak dituztenek kobratzen duten guztiagatik sistema publikoan ez kotizatzen (kotizaziorako gehieneko oinarriaren topearen ondorioz) eta euren aurrezkien zati bat BGAEetan inbertitzen jarraitzeko pentsatua dagoen eredia mantentzen du, baina gaur egun gehienek hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztela ahazten duena.

Hortaz, argi dago **BGAEn erreformaren helburu nagusietakoa errenta altuentzat onura fiskala sortzea dela**, finantza enpresek saltzen duten moduan. Izan ere, 2023ko urrian³, Urkulluk adierazi zuen hurrengo erreforma fiskalean BGAEek tratatu are aldekoagoa izango zutela PFEZaren kenkarietan.

Ezin dugu ahaztu, Munduko Bankuak krisi ekonomikoari aurre egiteko eredu moduan jarri zituenetik, pentsio funts pribatuek pentsio sistema publikoa ahultzeko bidean jarraitzen dutela. Eredu hau indartu egiten da Europako funtsetikiko menpekotasun espainiar eta frantsesaren bidez. Hauek pentsio publikoen sistemen erreforma prekarizatzaileak etengabe onartzea exijitzen dute.

Hauek dira osatzen dituzten langileen interesak defendatzeko eta ekarpenak zertan inbertitzen ziren kontrolatzeko BGAEetan parte hartzea erabaki genuenean eurretan jarri genituen espektatibak bete ez dituztela pentsatzera eramaten gaituzten arrazoiak. **Hau ez da langile moduan behar dugun eredia**. Are gehiago, gaur egun BGAEek ez diote pentsio sistema duin eta unibertsalaren eraikuntzari ekarpenik egiten. Kontrara, langileen gutxieneko bati soilik ematen diote estaldura eta sistema publikoa ahultzen dute.

³ Informazio gehiago izateko kontsultatu: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/albiste/2023/bgaei-buruzko-lehen-legearen-40-urteurrenean-lehendakariak-ziurtatu-du-eusko-jaurjaritzak-etorkizunari-begira-jarraitzen-duela-hobetzeko-ekimen-berriak-garatz/>

2. Euskal pentsiodunen bizi-baldintzak

Euskal Herriko pentsio sistema publikoaren ezaugarriak zehazteko helburuarekin, oinarritzkoa da lana eta eta enpleguaren arteko dikotomia apurtzea eta euskal langileen bizi-baldintzak bere osotasunean kontuan hartzea. Hau da, egun gure lurraldean dauden errealtate desberdinak ezagutzea. Beti agertzen ez diren baldintza eta berezitasunak, baina zuzenean eragiten dietenak langileen bizitza-kalitateari zahartzarora heltzen direnean.

2.1. Pentsiodunak Euskal Herrian

> Bizi-itxaropena


Bizi-itxaropenak gora egitea da Espainia eta Frantziako estatuak gehien erabiltzen duten argudioetako bat erretiroaren legezko adina igotzea justifikatzerako orduan. Alde batetik, pentsio-sistemaren "jasangarritasunaren" mesedetan zuzendu behar den "finantza-arriskutzat" jotzen dute pertsonak gehiago bizitzea. Beste alde batetik, ezkutatu egiten dute immigrazioak dakartzan hazkunde eta gaztetze demografikoa, migratuei lanerako eskubidea, inklusioa eta pentsio sistemari ekarpena egin ahal izateko aukera ukatzen dizkieten bitartean.

LABen uste dugu gehiago bizitzea langile-klasearen oinarritzko eskubideen konkista garrantzitsuekin zuzenean lotuta dagoela, lan-baldintza duinen aldeko borroka, osasunerako hain kaltegarriak ez diren lanak, laneko arriskuen aurreko babes eta osasungintza, hezkuntza eta babes sozialeko sistemara sarbidearekin. Bizitza-itxaropen handiagoak pentsioen balio handitze bidezkoa ekarri behar du. Horretarako, erretiroaren aurreko soldata eta pentsioaren arteko aldeak ezin du handitzen jarraitu.

Bizi-itxaropena Ipar Euskal Herrian:


- 2020an, 82,3 urte. 79,2 gizonak eta 85,3 emakumeek*.
- 2023an, 79,3 gizonak eta 85,2 emakumeek*.

Lapurdi, Behe Nafarroako eta Zuberoako bizi-itxaropena





Iturria: CARSAT Aquitanie eta INSEE

Hego Euskal Herriko datuei dagokienez, honakoa daukagu:



Iturria: *Indicadores Demográficos Básicos*. INE

Bizitza-itxaropena sexu-generoaren arabera kontuan hartzen badugu, honakoa dugu Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan:



Iturria: *Indicadores Demográficos Básicos*. INE

> Pentsiodunen batez besteko adina eta erretirorako legezko eta benetako adina

Azterketa zehatza egiteko, beharrezkoa da hiru elementu bereiztea: pentsiodunen batez besteko adina, erretirorako legezko adina eta erretiroko benetako adina.

Hemen duzue Euskal Herriko pentsiodunen batez besteko adina 2020an:

Pentsiodunen batzabeteko adina

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia	Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa
Emakumeak*: 74,8 urte	Emakumeak*: 75,2 urte
Gizonak: 72,1 urte	Gizonak: 73,4 urte
Guztira: 73,4 urte	Guztira: 74,3 urte

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala. OEDC, 2021

Beste alde batetik, gaur egun hauek dira erretirorako legezko adinak, hau da, penalizatorik gabe erretiroa lortzeko legeak aurreikusitako gutxieneko adinak:

Legezko adina

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia	Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa
65 urte	64 urte

Benetako erretiro adinari buruz estatu mailako datuak baino ez daude, baina gertu egon litezke Euskal Herriko errealitatetik:

Benetako adina

Espainiako estatua	Frantziako estatua
61 urte gizonak	60 urte gizonak
60 urte emakumeak*	61 urte emakumeak*

Iturria: OECD, 2021

Datu hauek gurutzatuz nabarmentzen da pentsiodunen batez besteko adina bizi-itxaropena baino ia 10 urte baxuagoa dela. Hau da Espainia eta Frantziako estatuak erabilitako beste argudio bat erretirorako legezko adina atzeratzeko, **kontuan hartzen ez duena euren pentsioa murriztua ikusi behar izan arren, langileak legezko adina baino lehenago erretiratzen direla.**


Legezko erretiro adina modu progresiboan handitzen dutenean, pertsona hauen kotizazioak luzaroagoan jasotzen jarraitzea da Frantzia eta Espainiako estatuaren helburua, pentsio-sistemaren jasangarritasunari eusteko mekanismo bakarra hau izango balitz moduan.

> Pentsiodun kopurua

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia

Hego Euskal Herrian 651.484 pentsiodun daude egun, eta gehienak gizonak dira:

Hego Euskal Herriko pentsiodunak, generoaren arabera (2023ko abendua)



Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

Pertsona pluripentsiodunak ere badaude Hego Euskal Herrian. Hala ere, datuek erakusten dute **pentsiodun guztien %10 baino ez direla**, hau da izaera pasibodun pentsio arrunt 2 edo 3 jasotzen dituztenak (erretiroa, alarguntza, zurstasuna edo gurasoen aldekoa). **Hala ere, pluripentsiodunen %80 baino gehiago emakumeak* dira:**

Pluripentsiodunen banaketa generoaren arabera

	Absolutua	%
Guztira	66.913	10,3
Emakumeak*	56.080	83,8
Gizonak	10.833	16,2

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

Datu honek, beste behin ere, indartu egiten ditu pentsioen sistema espainiarrak emakumeek* egindako lanen aitortzari ezartzen dizkion oztupoak. Hauek dira pentsio propioak eta bitzita duinerako nahikoa direnak eskuratzea neurri txikienean eskuratzen dituztenak.

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa

Ipar Euskal Herriari dagokionez, 163.176 pentsiodun daude egun, eta hauetatik %56,9 dira emakumeak*.

Pentsio motaren arabera, ikusten dugu emakumeak* direla pentsio zuzenak neurri handiagoan jasotzen dituztenak eta baita pentsio osagarrien jasotzaile nagusiak ere:

Pentsio zuzenak jasotzen dituztenen generoaren arabeko banaketa

	Absolutua	%
Emakumeak*	89.111	56,9
Gizonak	69.997	43,1

Iturria: CARSAT Aquitanie

Pentsio osagarriak jasotzen dituztenen generoaren arabeko banaketa

	Absolutua	%
Emakumeak*	3.678	90,4
Gizonak	960	9,6

Iturria: CARSAT Aquitanie

Honek esan nahi du gero eta emakume* gehiago lanera joan arren, hauei esleitzen jarraitzen zaizkien bizi eta lan-baldintzek, egiturazkoak diren desberdintasun hauei aurre egiteko mugatua den pentsio sistema batekin batera, ekartzen duela euren pentsio propioarekin ere nahikoa ez izatea.

2.2. Bizitza garestitzea

Bizitzaren kostuaren igoera esponentziala, zeinari Euskal Herrian ere aurre egin behar diogun, kapitalismoaren krisi sistemikoaren beste ondorio bat da. Krisia berezkoa du eredu patriarkal, arrazista eta ekozidak, eta espoliazioa eta denok sortutako aberastasuna esku gutxitan pilatzea dakartza.

Honekin lotuta, pertsona nagusi eta pentsiodunen artean gero eta gehiago dira ezin dutenak eskuratu etxebizitza duinik, neguan energia nahikorik, elikadura egokirik edota kalitatezko zaintza zerbitzu publiko eta komunitariorik, inoren esplotazioa ekarriko ez duenik..

Jarraian, euskal pentsiodunen benetako egoera sozioekonomikoa ezagutzen lagun diezaguketen adierazle batzuk ezagutaraziko ditugu.


> Benetan pentsiodunek hilabete amaieran jasotzen dutena

Aurreko atalean, egun Euskal Herrian indarrean dauden pentsioen batez besteko zenbatekoa aurkeztu dugu. Hala ere, Hego Euskal Herriko datuak xehatuz, garrantzitsua da kontuan izatea **pentsioen batezbesteko ekonomikoa eta benetan pentsiodunek jasotzen dutena ezberdinak direla.**

Hau gertatzen da pertsona askok, bizi osoan lan egin duten arren, ez dutelako lortzen duina izango den pentsio propioa eskuratzea, **soilik alargun pentsioak jasotzen dituztenen kasuan bezala.** Gainera, Espainiako estatuak emandako pentsioak eskasak direnez, badira ere pentsio propioa eskuratzeko gutxieneko kotizazioa izateko exijitzen diren oztupoak gainditzea lortu arren, berau **prestazio sozialekin edo kenkari fiskalekin osatzera behartuta ikusten dutenak euren burua** hilabete amaierara heltzea lortzeko. Errealitate hauek ez dira agertzen estatuak zabaldutako pentsioen batez bestekoetan.

Pentsiodun kopurua zenbatekoaren tarteen arabera (Hego Euskal Herria, 2023ko abendua)

	Pentsiodun kopurua	%
< 1.080 €	217.246	33,3
1.080 - 3.059,23 €	374.484	57,5
> 3.059,23 €	59.754	9,2



■ < 1.080 € ■ 1.080 - 3.059,23 € ■ > 3.059,23 €

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

**ADI!**

- Pentsiodunen %33,3ak Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino pentsio baxuagoa du.
- 200.000 pentsiodun baino gehiago ez dira 1.080 €tako pentsiora iristen.
- 1.080 €tik beherako pentsioa dutenen %68,8 emakumeak* dira.
- Emakume* pentsiodunen artean, %45,6ak 1.080 € edo gutxiagoko pentsioa jasotzen du. Gizonezkoen kasuan, %21,6 dira.
- Pentsiodun guztien artean ordea, %2,6 soilik dira gehienezko pentsioa (3.059,23 € edo hortik gorakoa) jasotzen duten emakumeak*. Emakume* pentsiodunen artean, %5,3raino heltzen da portzentaia.
- Gehienezko pentsioa edo hortik gorakoa jasotzen dutenen artean aldiz, %71,9 dira gizonak.

Estatistika ofizialetan jasotzen diren pentsioen zenbatekoen tartea oso zabalak dira eta 1.080 €tik 3.059 €ra doanean daude pentsiodun gehienak, %57,5 zehazki. Ezin dugu datu zehatzik eman, baina pentsa dezakegu pentsiodunen kopuru handi bat beheko mugatik gertuago dagoela.


Horregatik, pentsioen batezbestekoa eta pentsiodunek hilabete amaieran benetan jasotzen dutena bereizteak agerian uzten du prekaritatea askoz handiagoa dela Hego Euskal Herriko pentsiodunen artean, Espainiako pentsio sistema bizi-baldintza duinak izateko behar bestekoa ez dela berretsiz.

> Erosahaltenaren galera

Ipar Euskal Herrian pentsioak ez dira inflazioaren arabera eguneratzen. DREESek 2023an argitaratutako txostenaren arabera, oinarrizko pentsioek %0,4 handitu zuten balioa 2021eko urtarrilean eta Agirc-Arrco pentsio osagarriek %1 2021eko azaroan. Erregimen guztiak elkartuta %0,5 egin zuten batez beste gora pentsioek 2021ean. Hala ere, prezioek %2,8 egin zuten gora 2020ko abendua eta 2021eko abendu artean, **pentsioen erosahaltenak %2,2 egin zuen behera 2021ean**. Horrek esan nahi du pentsiodunen erdia baino gehiagori %10 murriztu zaiela pentsioa.

2023an, Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) maitatza eta uztaila artean izan zuen balio altuena eta horren ondoren pixkanaka jaitsiz joan da, oso altu geratu den arren. Espainiako gobernuak erabaki zuen KPIren urteko batezbestekoaren gainetik eguneratzea pentsioak, urtean zehar prezioek izan zuten igoera konpentsatzeko. Horregatik, 2023an, KPIren gainetik eguneratu dira pentsioak:


Pentsioen eguneratzea eta KPIren bilakaera 2011-2024



Iturria: Geuk egina, INE eta Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren datuetan oinarrituta

Grafiko honetan ikusten da pentsioen igoera ez dagoela KPIrekin lotuta, Gobernuak hartzen duen erabaki politiko bat dela baizik. Urte batzutan urtearteko KPItik gora igo dira pentsioak, gehienetan, KPI oso baxua zenean. 2023an aurkitzen dugu salbuespenik esanguratsuen, pentsioak KPI altu bat baino gehiago igo baitziren. Edozelan, hurrengo grafikoan ikusiko dugun moduan, erosahalmena aztertzerako orduan, kontuan izan behar dugu bizitzaren gero eta gehiago garestitzen dela igoeraz igoera.

Pentsioen eguneraketa eta metatutako KPIren bilakaera 2011-2024



Iturria: Geuk egina, INE eta Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren datuetan oinarrituta

Bigarren grafiko honetan ikusten da pentsioen erosahalmenaren galera. Horretarako, pentsioen igoeraren bilakaera metatutako KPIarekin konparatzen dugu. Esan genezake bi lerroen arteko tartea dela pentsiodunek 2011tik 2024ra galdu duten erosahalmena.

> Gutxieneko pentsioak eta osagarriak

Egungo pentsioak urriak eta eznahikoak direnez, "gutxieneko osagarria" sortu eta garatzen da, kobratzen den kotizaziopeko pentsioaren zenbatekoari "gehitzen" zaion kopurua, honela, legeak exijitzen duen gutxienekora iristen da hau.



Larria da gaur egun Hego Euskal Herrian ia 80.000 pentsiodun egotea bizitzeko gutxienekora iristeko euren pentsioa osatu behar dutenak. Are larriagoa da %75a emakumeak* izatea.

Gutxieneko pentsioa jasotzen duten pentsiodunen kopurua generoaren arabera

	Pentsiodun kopurua	Pentsiodun guztiekiko %	Generoaren araberako banaketa %
Emakumeak*	60.665	9,3	76
Gizonak	19.157	2,9	24
GUZTIRA	79.823	12,3	100

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

Pentsioak eta soldatak bereizi ezin diren eskubideak dira. Horregatik, garrantzitsua da gutxieneko **pentsioaren zenbatekoak Lanbidearteko Gutxieneko Soldata izatea erreferentzia moduan**. Lanbidearteko Gutxieneko Soldata, Europako Eskubide Sozialen Kartaren erreferentzia erabilita, lurraldeko batez besteko soldataren %60an kokatzen da, Euskal Herriaren kasuan, 1.400 euro gordin 14 pagatan. Horrela, 1.080 eurotako pentsioaren aldarrikapenak premia handiagoa du, aipatutako Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) arabera 1.260 eurotako gutxieneko pentsioaz hitz egin beharko genukeelako.

Aldarrikapen honen kontrara, Espainiako Gobernuak eta CCOO eta UGT sindikatuek onartutako azken pentsioen erreformak zehazten du kotizaziopeko gutxieneko pentsioen zenbatekoak **pobrezia arriskuaren atalasea** (estatu osoko errentaren medianaren %60) izango duela gutxieneko berme moduan. INEren Bizi-Baldintzen inguruko Inkestan zehaztutako kontzeptua da, Hego Euskal Herrian langileek bizi duten errealitatearen oso azpitik dagoen Espainiako estatu mailako erreferentzia.

Hego Euskal Herrian, urte arteko KPI %3,8 izan dela kontuan izanda, gutxieneko kotizaziopeko pentsioak honakoak izango dira 2024an:

Gutxieneko kotizaziopeko pentsioa (2024-2027)

	2024	2027
Erretiroa (65 urtetik gorakoak ezkontide gabe / pertsona bakarrekoa)	825 €	918 €
Erretiroa (65 urtetik gorakoak ezkontidearen kargu izanda)	1.033 €	1.176 €
Alarguntza (65 urte edo gehiago edo %65etik gorako aniztasun funtzionala)	825 €	1.176 €

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala

Ikusten da Espainiako Gobernuko Inklusio Ministerioaren aurreikuspenek erakusten dutela erretiroko gutxieneko pentsioak langile bakoitzaren norbanako eskubide moduan ez direla 1.080 euroetara iritsiko ez 2024an ez 2027an.

Nabarmendu beharrekoa da aurrera pauso garrantzitsua dela gutxieneko alargun pentsioak %14 igotzea. Hala ere, **familia-kargak dituen alargun pentsioari soilik dagokio igoera aipagarri hau**, oso baldintza zorrotzak dituen eta pentsiodunen oso portzentaia txikiari dagokiona, adinean aurrera egin ahala txikiagoa baita familia-kargak izateko aukera. 2024an, bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako alargunek 825 euro baino ez dituzte kobratuko.

Kotizazio gabeko gutxieneko pentsioei dagokionez, KPltik gora igoko dira. Horrela, 2024an, %6,9 egingo dute gora.

Kotizazio gabeko gutxieneko pentsioa (2024-2027)

Urtea	Hileroko zenbatekoa
2024	517 €
2027 (aurreikuspena)	589 €

Iturria: *Proyecciones del Gasto Público en Pensiones* txostena. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa


Guzti honek dakar Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak gutxieneko pentsioak osatu behar izatea hobari fiskal eta inklusio sozialeko tresnen bidez.



ADI!

2023ko abenduan, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, 14.302 pentsiodunek Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) bidez osatzen zuten euren pentsioa. Osagarri hau ez da ofizioz ematen eta eskubide honen inguruko ezezagutza dela eta, uste da 23.000 pentsiodun inguruk ez zutela kobratu horretarako eskubidea izan arren.


DSBE kobratzen duten pentsiodunak (2023ko abendua)



Iturria: LANBIDE

Nafarroan, 2022an, 11.088 pentsiodunek osatu zuten euren pentsioa hobari fiskalen bidez. Horietatik, 5.595ek alargun pentsioak jasotzen dituzte, 4.856k kotizaziopeko pentsio baxuak eta 637k kotizazio gabeko pentsioak.

Nafarroan hobari fiskalen bidez pentsioa osatzen dutenen kopurua, jasotzen duten pentsio motaren arabera (2022)



Iturria: Nafarroako Gobernua

2.3. Zor patriarkala emakume* nagusien ikuspegitik

Lanaren banaketa sexualak zaintza lanak modu eksklusiboan emakumeok* egin beharreko bezala inposatzen ditu, menpekotasun ekonomikora, ikusezintasun sozialera eta politikan berdintasunean parte ez hartzera eramanez. Gainera, emakume* migratu eta arrazaliazatuak, funtzionalki anitzak eta heteroaraua auzitan jartzen dugunak gara zeharkatzen gaituzten zapalkuntza ardatzen ondorio okerrenak jasaten ditugunak.

Ondorioz, gaur egun emakume* langileok gutxiago kobratzen dugu, lan-baldintza okerragoak ditugu, jazarpena jasaten dugu eta aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialak onartzera behartuak gaude, askotan, gogoz kontra. **Eskubideen urraketa arkitektura matxista, erretiroa hartzerako orduan ere ondorio larriak dituena.**


> Genero arrakala soldata eta pentsioetan

Hego Euskal Herrian, nabarmenak dira asimetria patriarkalak lan munduan:

• Langabezia

SEPEren 2023ko abenduko datuen arabera, egun 137.767 langabe dago, eta horietatik %57,58 emakumea* da.

Langabetuak generoaren arabera




• Langabezia tasa

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2023ko hirugarren hiruhilabeteko datuen arabera:



- Egungo langabezia tasa %8,6koa da. Gizonena %7,6koa da eta emakumeena* %9,6koa.
- 55 urtetik gorakoen langabezia tasa %8,6koa da. Hauen artean, gizonena %6koa da eta emakumeena* %11,4koa.

Langabezia tasa orokorra eta 55 urtetik gorakoena generoaren arabera (2023ko hirugarren hiruhilabetekoa)



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Hortaz, ikusten da **langabezia indize orokorrak emakumeen* eskubideen kontura jaisten direla**, emakumeen* langabeziak gora egiten jarraitzen baitu gizonezkoena jaisten den bitartean.

• Hitzarmen kolektiboen gabezia

Sektore feminizatuetan gatazka gehiago egon arren, negoziazio kolektiboaren blokeoa ere askoz nabarmenagoa da. 2021ean argitaratu ditugun datuen arabera⁴:



ADI!

- Euren lan-baldintzak hitzarmen bidez inoiz arautu ez dituzten sektoreen artean, sektore feminizatuak nagusitzen dira. Honen ondorioa da **euren lan-baldintzak lan hitzarmen bidez arautzen ez dituzten langileen %75 emakumea* dela**.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan hitzarmen bidez arautu gabeko jarduerak egiten dituzten langileen erditik gora, %55,9a, **etxeko lanetan** ari dira, Lan Harremanen Kontseiluaren arabera 28.000 pertsona inguru.

• Lan-kontratu motak

SEPEren 2023ko abenduko datuen arabera:




ADI!

- Kontratuen %78,6ak aldi baterakoa izaten jarraitzen du. Kontratu mugagabeen proportzioa handitu arren (%21,24), aldi baterako kontratu asko daude oraindik.
- Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratua dute emakumeen* %7,1ak eta gizonen %4,1ak.
- Aldizkako kontratu finkoa dute emakumeen* %5,0ak eta gizonezkoen %2,6ak.
- Gizonen %68,8ak eta emakumeen* %42,8ak dute lanaldi osoko kontratu mugagabea.

⁴ LABek, 2021eko otsailean, "Sektore feminizatuaren egoera orokorra Hego Euskal Herriko enpleguan" azterketa argitaratu zuen. Hemen dago eskuragai: <https://www.lab.eus/wp-content/uploads/2021/02/TXOSTENA_EU.pdf>

Lan-kontratu motak, generoaren arabera (2023ko abendua)



Iturria: SEPE


• **Lanaldi motak**

Lanaldiak modu erabakiorrean baldintzatzen du soldata-maila. Lanaldia txikiagoa bada, soldata ere jaitsiko da. Gainera, langile partzialen lan-baldintzak lanaldi osoan lan egiten dutenak baino okerragoak izaten dira. SEPEren 2023ko ekaineko datuen arabera:



- **Emakumeen* %25,7** eta gizonezkoen %10,9 lanaldi partzialean ari da.
- Gizonezkoen %78,5 eta emakumeen* %57,3 lanaldi osoan ari da.

Lanaldi-motak, generoaren arabera (2023ko ekaina)



Iturria: SEPE

- **Batez besteko soldata**

Hego Euskal Herriko batez besteko soldataren bilakaera aztertuz, INEren 2021eko datuen arabera, ikusten da soldataren genero-arrakala egiturazkoa dela, eta mantendu ez ezik gora ere egiten duela urterik urtera. Gainera:



- **Gizonezkoek soldata altuagoak dituzte.** Gizon batek urtean emakume* batek baino 5.903 € gehiago kobratzen ditu, batez beste. Hau da, gizonezkoen batez besteko soldata emakumeena* baino %21,06 altuagoa da.
- **Emakumeen batez besteko soldata batez besteko soldataren azpitik dago** (urtean 3.135 euro). Soldatarik baxuena jasotzen duten emakumeen* batez besteko soldata, aldiz, batez besteko soldataren oso azpitik dago (20.131 euro gutxiago urtean).
- **Gizonezkoen batez besteko soldata ordea, batez besteko soldataren gainetik dago** (2.768 euro gehiago urtean) eta soldata baxuena jasotzen duten gizonen soldaten eta batez besteko soldataren aldea emakumeen* kasuan baino txikiagoa da (14.908 euro gutxiago urtean).
- Bi generoak kontuan hartuta, **soldata baxuena dutenek batez besteko soldata baino 18.239 euro gutxiago kobratzen dituzte urtean.** Urtez urte haziz doan aldea.
- Horrela, ikusten dugu, batz bestea, **soldata baxuenak dituzten emakumeek* soldata baxuenak dituzten gizonek baino gutxiago kobratzen dutela.** Soldata baxuenak dituzten emakumeek* batezbestekoa baino 20.131 euro kobratzen dituzten bitartean, gizonen kasuan batezbestekoarekiko aldea txikiagoa da (14.908 euro gutxiago).

Datuek erakusten dute Hego Euskal Herrian emakumeen* enplegua gizonena baino prekarioagoa eta ezegonkorragoa dela. Etorkizuneko pentsioen zenbatekoa enpleguarekin lotuta egongo denez, ondorioztatu daiteke emakumeen* pentsioa ere baxuagoa izango dela, emakume* pentsiodunen bizi-baldintza prekarioagoak betiketuz.

Hego Euskal Herriko pentsiodunen batezbesteko pentsioa eta pentsio arrakala (2023ko abenduaren 1eko datuekin eguneratua)

	Hileko batez besteko pentsioa (€)		Pentsio arrakala	
			Aldea €	Aldea %
Guztira	1.641,1		517,3	38,4
Emakumeak*	1.360			
Gizonak	1.877,3			

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala

Faktore guzti hauek erakusten dute, diru-sarreretan dagoen alde ekonomikoaz aparte, lan-munduan dagoen diskriminazio sexistak oztopo ugari sortzen dituela emakumeen* laneko bizitzan. Oztopo hauek, behin zahartzarora iritsita, areagotu egiten dira.



ADI!

- Hego Euskal Herrian, egungo soldata arrakala %21etik gorakoa den bitartean, **pentsioen genero-arrakala %38,04tik gorakoa da**. Honek esan nahi du gizon pentsiodunek hilean emakumeek* baino 517,3 euro gehiago kobratzen dituztela batez beste.
- Ipar Euskal Herrian ere emakumeen* batz besteko erretiro pentsioa gizonena baino nabarmen baxuagoa da (1.425 euro hilabetean eta 1.976 euro hilabetean, hurrenez hurren, 2021ean). Hortaz, **emakumeen* batez besteko pentsioa gizonena baino %40 apalagoa da**.

> Alargun pentsioa: eratorritako eskubide baten gaineko begirada kritikoa

Euskal Herrian egun indarrean dauden pentsio sistemetan alargun pentsioak eratorritako eskubide moduan arautzen dira, ekonomikoki bikotekidearen menpeko zen pertsona batek honen heriotzagatik duena. Pentsio honek ezkontza, monogamia eta familia nuklearra bezalako instituzioak barnebiltzen ditu.

Alargun pentsioen atzean dagoena "produktibo" deitutako lanen zentraltasuna da –nagusiki gizonak egindakoak- eta bizitzari eusteko beharrezkoak diren zaintza lan guztiak ezkutatzea. Funtsezko lan hauek modu ekitatiboan banatu beharko lirateke jendartean, baina historikoki, emakumeen* kargu geratu dira doan eta aberastasun sozial bezala kontuan hartu gabe.

Egia da gaur egun alargun pentsioa diru-sarrera iturri bakarra dela enplegurako eskubidea ukatu zitzaizen emakume* askorentzat, eta baita soldata apalak osatzeko modua ere. Horregatik, Euskal Herrirako pentsio sistema publiko eta propiorantzko trantsizioan, egungo alargun pentsioak pertsona askoren biziraupenerako funtsezkoa den hutsune bat betetzen dute. Hala ere, **aurreikusita dagoen moduan, pentsio honek ez du laguntzen berau justifikatzen duten biolentziak desager daitezten egin beharreko eredu aldaketan**.

> Zaintzak bermatzea babes sozialeko sisteman

Lanaren banaketa sexualak emakumei* etxeko eta zaintza lanak inposatzeak ekartzen du lan hauek, askotan, gatibutasunetik gertu dauden egoeretan garatzea. Hau da, erantzukidetasun logika batetik urrun, laneko ikuskaritzetatik eta botere publikoen gainbegiratzetik urrun.


Zaintza lanak gure jendartearen oinarri demokratizatzaile bezala aitortuko dituen babes sozialeko euskal sistema publiko-komunitario bat ziurtatzearen aurreko erresistentziak emakumeek* lan hauek bakardadean eta prekaritatean onartzen jarraitzea dakar.

Erabaki politiko hau oso funtzionala zaio kapitalismoari eta bat egiten du mundu mailako lanaren banaketarekin, zeinaren oinarriek eredu patriarkal, kolonial, harrapakari eta biziki arrazistara garamatzaten. **Zapalkuntza, espolio, esplotazio eta kanporatze logika horren ondorioz, gaur egun, Euskal Herrian, gero eta emakume* migratu gehiagok hartu behar dituzte beren gain lan horiek, erdi-esklabutza baldintzetan.**

Etxeko langileentzako lan-arabide berezia, oinarrizko arreta-zerbitzuen merkantilizazioa eta pribatizazioa, pobrezia feminizazioa, lan-munduko segregazio bertikala eta horizontala eta zaintzari lotutako baimenen ondoriozko soldata-murrizketa dira emakumeen* pentsioetan zuzenean eragiten duten ondorioetako batzuk.

Ez da kasualitatea euren pentsioetan **amatasun osagarria** jasotzen duten Hego Euskal Herriko pentsiodunen inguruko datuak aztertzen ditugunean honakoa ikustea:

Indarrean dauden pentsioak amatasun osagarriekin, generoaren arabera (2023ko abenduko nominaren datuak, %)




■ Emakumeak* ■ Gizonak

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutua

Nabarmendu beharrekoa da, 2021ko otsailetik aurrera, pentsioen "amatasun" osagarria egungo "genero arrakalatiko osagarriak" ordezkatu duela.

Indarrean dauden genero-arrakalatiko osagarria duten pentsioak (2023ko abenduko nominako datuak, %)



■ Emakumeak* ■ Gizonak

Iturria: Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren Institutua

Hala ere, **soldata arrakalatiko osagarria**, LAB ados ez dagoen zenbait eparen ondoren, edozein pertsonak jaso dezake edozein delarik bere sexu-generoa, kotizaziopeko erretiroko, ezintasun iraunkorreko edo alargun pentsio bat baldin badu eta seme-alaba bat edo gehiago izan baditu. LABen eskas eta nahasgarritzat jotzen dugu genero arrakalatiko osagarria aldatzea, honen jatorria sakonki bidegabekoa eta sexista den lan munduaren banaketa sexuarekin baitago. Zifrek adierazten dute **emakumeak* direla zaintza lanak egiten jarraitzen dutenak.**

3. Pentsio sistema publiko eta propiorantz aurrera egiten

Pentsio sistema da nahi dugun jendarte eredu definitzen duen ardatz nagusietakoa. LABek lan zabala egin du defendatzen duen eredu sozialaren inguruan, eta hau zehaztuz, Euskal Lan Koderako eta Gizarte Segurantzako Sistema propioaren proposamena egin ditu. Lan hau Banaketa Hirukoitzerako (enplegua, zaintza eta aberastasuna) proposamena deitu dugunean egituratzen da. Haritik honen eranskinean jaso ditugu pentsioen inguruan LABen Programa Sozioekonomikoan⁵ dauden hausnarketa eta proposamenak.

Pentsio sistema publiko eta propiorantz bideak zabaltzeko, lan- eta bizi-baldintzak arautzeko gaitasunari dagokionez dugun autogobernu maila mugatua ikusita, bereziki garrantzitsua da egungo esparru arautzailea aldatzea pentsio sistema publikoari buruz erabaki ahal izan dezagun, beste gai batzuen artean. Funtsezko estrategia da, honezkero euskal instituzioen eskuetan dauden eskuduntzen garapenarekin osatu behar dena.

3.1. Eskuduntzetan eragin

> Zor patriarkalaren aitortza eta zaintzagatiko pentsio konpentsatzailea

Premiazkoa da emakumeek* historikoki doan eta kotizatzeke aukerarik gabe egin dituzten zaintza lanak aitortzea. Horregatik, **pentsio konpentsatzaile bat proposatzen dugu etxeko eta zaintza lanak egin dituzten pertsona guztientzat**. Trantsiziozko neurri bat, zaintza lanak jendartean modu ekitatiboan banatuta egon arte, eta pentsio indibidualizatua ziurtatzen duena (propioa), familia-loturetatik independentea.

Zaintza lanetan aritu direlako enplegurako sarbidea izan ez duten edo exijitutako gutxieneko kotizazio aldira iritsi ez diren emakumeen* kasuan, zaintzagatiko pentsio konpentsatzailearen zenbatekoa **kotizaziopeko gutxieneko pentsioaren bestekoa izan behar da**. Enplegua izan baina lanaldi bikoitz edo hirukoitza dela eta pentsio arrunt apala duten emakumeen* kasuan, proposatzen dugu zaintzagatiko pentsio konpentsatzailea **pentsio arruntaren osagarria** ere izan dadila, jendarteak emakumeekin* duen zor patriarkala kitatzeko.

Argi dago, neurri honetaz gain, funtsezkoa dela pentsio arruntak zaintza lanetatik eratorritako kotizazio hutsuneak %100ean aitortu eta osatzea. Honela, **jatorri eta izaera desberdina izan arren**, modu transitorioan, **pentsio honek alargun pentsioa ordezkatu dezake**, propioa ez den eratorritako eskubide baten oinarritzen den pentsioa eta gaur egun emakume* langile asko ekonomikoki babesten dituena. Edozein kasutan, ordezkatzeko honek ezingo du ekarri gaur egun alargun pentsioa kobratzen duten emakumeek* erosahalmena galtzea, eta beti ezarriko da jasotzaileen mesedetan.

⁵ Hemen eskuragai <https://www.lab.eus/wp-content/uploads/2021/09/PROGRAMAEUS>

> Gizarte Segurantzaren kudeaketa berehala transferitu

Gernikako Estatutuaren arabera, EAERI dagokio Espainiako estatuko oinarritzko legeriaren lege-garapena eta berau betetzearen eskuduntza, honen erregimen ekonomikoa konfiguratzeko duten arauak salbu, eta baita gizarte segurantzaren kudeaketa ekonomikoa ere (18.2 art). Artikulu honek eta Boskarren Xedapen Iragankorrek honi esleitu arren Gizarte Segurantzaren "kudeaketa ekonomikoa", aurreikuspen hau ez da ezarri "kutxa bakarraren" printzipioaren ondorioz. Printzipio kontable hori guztiz instrumentala da, eta estatutuak aurreikusitakoa betetzea eragozten du⁶.

Konstituzioak zehazten du autonomi erkidegoek eskuduntzak euren gain ahal izango dituztela "Asistentzia Sozial" gaietan. EAE eta Nafarroako Autonomia Estatutuek eskusibotzat jo dute eskuduntza hori. Horregatik jarduten dute asistentzia sozialeko sistemek Gizarte Segurantzaren sistema estatalaren osagarri edo gehigarri moduan. **Adibiderik nabarmenena da Espainiako gutxieneko pentsio apalak osatzea, EAEn DSBE bidez eta Nafarroan PFEZaren hobariaren bidez errentako aitopenean.** Bi eredu osagarriak LABek konpartitzen ez duen asistentzia sozialeko ikuspegiari erantzuten diote.

Hala ere, pentsioen Espainiako sistemak pentsiodunak uzten dituen zaugarritasun eta pobretze egoeraren premia ikusita, **beharrezko neurri bi daude epe laburrera.** Lehena, **DSBE eta errenta aitopeneko hobarien bidezko osatzea ofizioz egitea**, gutxieneko pentsioen inguruan, Europako Karta Sozialean jasotako nahikotasun irizpideak gutxienez betetzen direla bermatuz.

Bigarrena, **Gizarte Segurantzaren kudeaketaren berehalako transferentzia** da, kudeaketa ekonomikoa sartu behar duena transferentzia hitzarmenean, eta baita Espainiako estatu mailako oinarritzko legeria garatzea EAE eta Nafarroan: bilketa erregimena, sistemaren prestazioak ordenatzea eta bere finantzazioa. Norabide honetan, sistema propiorantz aurrera egiteko benetako oztopo bakarra EAE eta Nafarroan Espainiako estatu mailako Gizarte Segurantzaren Legearen oinarritzko eskuduntzak garatzen jarraitu ahal izateko borondate politikoa da.

Honela, LABek bermatutako gutxieneko pentsioaren alde egiten du, begirada 1.260 euroetan jarrita (Euskal Herriko LGSaren %90) eta premiaz 1.080 eurotako behar dena 14 pagatan, Pentsiodunen Mugimendua zein Euskal Herriko gehiengo sindikal eta sozial eskatzen ari diren moduan. Hau esanda, **nabarmena da pentsioak hobetzeko eskuduntzen bide egokiena ez dela asistentzia sozialarena**, eta ondorioz, egiteke dauden transferentziak bizkortzeaz gain, beharrezkoa da gutxieneko pentsioak osatzea aurrekontu bidezko finantzazio zuzenaren bidez.

⁶ Kutxa bakarraren batasunaren printzipioa, 2015ean Eusko Jaurlaritzak bere *Gizarte Segurantzako sistema propioaren bideragarritasunari buruzko txostena*-n adierazten du: "ez da Konstituzioan jasotako kontzeptua, eta ez die erantzuten berdintasun, batasun ekonomiko-finantziario edo Gizarte Segurantzaren erregimenaren izaera unitario edo elkartasun irizpide konstituzionalari. Printzipio kontable eta instrumental soila da".

> Sistema osagarri publiko, unibertsal eta berbanatzailea bultzatu

Egun euskal instituzio publikoen esku dagoen pentsio sistema osagarria fiskalitate eta aurrekontu bidezko finantzazioaren menpekoa da. Horretarako, borondate politikoaz gain beharrezkoa da inbertsio ekonomiko handia. Era berean, kotizazio bidezko finantzazioa blindaje konstituzionalaren bidez eragozten da.

Hala ere, badaude pentsio funts pribatu eta osagarriak (BGAE) langileek egiten dituzte ekarpenekin elikatzen direnak eta euren nominetatik zuzenean deskontatzen zaizkienak, eta ez da ulertzen pentsio sistemaren batasuna auzitan jartzen dutela. Are gehiago, Espainiako gobernuak BGAEen eredian oinarritutako pentsio plan pribatuak hedatu nahi ditu.

BGAEen legea kapitalizazio sistema osagarri baten lege-garapenean oinarritzen da, eta ez banaketa ereduaren barruan dagoen izaera publikodun sistema batean. Horregatik uste dugu beste finantza-produktu bat gehiago bilakatu direla eta gainera, langileen arteko desparekotasunetan sakondu eta pentsio sistema publikoa ahultzen dutela. Ondorioz, hasteko, **banakako pentsioen sistema osagarriek abantaila fiskalak izateari utzi behar diote.**

Era berean, sistema osagarri kolektiboen inguruan, eta espezifikoki negoziazio kolektiboaren barruan sartuta dauden enpleguko inguruan, proposatzen dugu **EAE zein Espainiako estatutik bultzatutako ereduak sistema publiko, unibertsal eta berbanatzaile batek ordezkatzea.**

Eraldaketa jarraian zehazten ditugun irizpideen arabera egin behar da. Lehenik, sistema osagarri **publikoa** izan behar du eta ondorioz, administrazio publikoak kudeatu behar du, honetara bideratutako Agentzia Publiko baten bidez edo honezkero badagoen Euskal Finantzen Institutuaren bidez, helburu hori lortzea ahalbidetuko luketen kudeaketa legalak egin ditzan.

Bigarren irizpidea sistema osagarriaren **unibertsaltasuna** izan behar da. Hortaz, beharrezkoa da LGS propio bat ezarriko duen akordio intersektorial bat, era berean, negoziazio kolektibo bidez patronala zein langileen ekarpena arautuko duena.

Azkenik, sistema honek **berbanatzailea** izan behar du, pentsiorik baxuenak modu onuragarrienean konpentsatu daitezten. Horretarako, aipatu ekarpenak ezin dira soldataren portzentajera lotuta egon. Laneko errenten ekarpenek linealak izan beharko dute eta patronalaren errentenek esponentzialak (ekarpena handiagoa izanik errenta baxuenen kasuan).

BGAEen eredu osagarria edo Madrildik bultzatutako pentsio plan pribatuak publikoa, unibertsala eta berbanatzailea izango den eta enpleguari lotuta egongo den sistema osagarri batek ordezkatzea, posiblea zein bideragarria da legal zein ekonomikoki. Gainera, **bultzatu beharreko ereduak izan behar da aldeko fiskalitatea eta lehenetsutako sistematzat joko duen legeriaren bidez.**

3.2. Eredua aldatu egungo pentsioak hobetzeko

> Enplegu politika integrala garatu pentsio duinak finantzatzeko

Pentsio sistema publiko eta propioaren aurkako indar politikoek, historikoki, euren kontrakotasuna erakutsi dute sistemaren defizita nabarmenduz edo, beste hitz batzutan, bideragarritasun ekonomiko falta. Kotizazio sozialen bidezko sarreraren eta prestazioen kostuaren arteko aldea aipatzen dute, termino hauetan Espainia eta Frantziako estatuetakako sistemak ere defizitarioak direla alde batera utziz. Aldea da Espainiako estatuaren kasuan, defizit hauek Erreserba Funtsaren eta estatuak Gizarte Segurantzari egindako mailegu eta transferentzien bidez konpentsatu direla.

Espainiako pentsio sistema publikoa eta Gizarte Segurantzaren defizitari buruz, pentsioetan egindako "gastua" murrizteaz gain, badira defendatzen dutenak kotizaziopeko pentsioak nagusiki kotizazio bidez finantzatu behar direla, eta kotizaziopekoak ez diren pentsioak estatuaren ekarpen zuzenen bidez. Banaketa finantzario honek kotizazio sozialak, eta ondorioz soldatak, ez igotzea du helburu moduan.

Hala ere, ezin dugu ahaztu enpleguaren kantitatea eta kalitateak jaistek, partzialitateak gora eta soldatek behera egiteak kotizazio sozialetatik datozen sarrerak murrizten dituztela, eta honela, hauek ez dute kotizaziopeko prestazio ekonomikoen gastu osoa estaltzen. Era berean, enpresa-errenten igoera ez da inbertsioa eta enpleguaren sorrerara bideratzen. Gainera, kapital errenten zergapetzea, tipo efektiboaren bidez, laneko errentei ezartzen zaiena baino txikiagoa da.

Gainera, 2023an Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioaren arabera, **Espainiako pentsio publiko sistemak, neurri handi batean, hutsuneak ditu genero berdintasunari dagokionez**. Azaltzen duten moduan, genero arrakala kentzeak 18.455 milioi eurotako sarrera gehigarriak emango litzioke pentsio sistema publikoari (egungo sarrerak %12 gora eginez). Era berean, 9.000 miloi euro gehiago ekarriko litzuzke BEZ bidezko diru bilketatik.

LABen proposatzen dugu pentsioen finantzazioa langileek Gizarte Segurantzari egindako kotizazioen bidez bermatzea nagusiki, aurrekontuetatik datozen funtsen bidezko finantzazioa ere erabili ahal izateko aukerarekin. **Helburua da soldatak duintzearen bidez pentsio sistema publikoaren beharrezko finantzazioa izatea.**

> Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren bidezko finantzazioa

EAEko Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa Espainiako estatuarekin egindako alde biko akordioak dira, zerga eta finantza arloko gaietan euren harremanak arautzen dituztenak. Foru ogasunek zergak bildu, ikuskatu eta kudeatzea ahalbidetzen dute, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua, aldundia eta udalek erabiliko dituzten diru-sarrerak sortuz.

Azken urte hauetan autogobernuaren ikur bihurtu dira. Hala ere, zeharkako zergak arautzea (biltzen denaren erdia, gutxi gora-behera) eta Gizarte Segurantzari egindako ekarpenak Espainiako estatuaren eskuduntza dira.

Posible dena da, eskuduntzen esparru autonomikoan sistemaren erregimen ekonomikoaren kompetentzia garatzeaz gain, **politika fiskal progresiboa** garatzea, eta honela, diru gehiago bilduko litzateke.

> **Kotizazio hutsuneak %100ean osatu**

Garrantzitsua da nabarmentzea sexu-generoa, arraza, klase soziala eta jatorria zaintzen banaketa ezberdina zeharkatzen duten ardatzak direla, jasotzen zein ematen dituztenen ikuspegitik. Sistemak esplotazio egoera hauek baliatzen ditu irabazia ateratzeko eta egoera muturrenekoak, batez ere, **emakume* migratuek** jasaten dituzte.

Hainbat dira erretiroa hartzen duten langileek miseriako pentsioak izatea eragiten duten faktoreak, hala nola lan informala, aldi baterakotasuna, partzialitatea, LGSren azpiko soldatak, indarkeria matxista edo enplegatzaileen jazarpena, ikasketak ez homologatzea eta edozelango oztopo administratiboak euren jatorriko herrialdeetako kotizazioak hemen kontuan har ez daitezen.

Zaintzen pribatizazioak, erantzukidetasun faltak eta etxeko lana lan erregimen orokorrean guztiz ez sartzek zaindutako pertsonak jasotzen duen arretaren kalitateari zein langile hauek erretiro pentsio bat bezalako oinarriko eskubidea izateari eragiten diete.

Horregatik, **etxeko langileen barruko erregimena kentzea proposatzen dugu, kotizazio hutsuneak %100ean osatzea, tarteak kentzea eta soldata errealegatik kotizatzea.**

3.3. Estatus politiko berrirantz aurrera egin

> **Gizarte Segurantzaren Euskal Institutua aktibatu Gizarte Segurantzaren transferentziaren kudeaketarako**

Berriki, EAJk ustezko akordio bat iragarri du PSOerekin Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaren transferentziaren inguruan. Inolako ondorioz izango ez duen akordioa, Espainiako Gobernuak honezkero adierazi baitu hau ez dela inolako lehentasuna.

Kutxa bakarraren dogma onartzen jarraitzen duen akordioa da, uko egiten diona lege garapenari eta oinarriko legeria betearazteari. Kontzertu Ekonomikoaren sistema baztertzen duen akordioa da, zeinaren arabera sarrerak (kotizazioak) eta prestazioen ordainketak gure lurraldean egin beharko liratekeen.

Ezin dugu ahaztu azken urteetako aurrera pauso bakarra enplegu politika aktiboen transferentzia izan dela (lan merkatuan bitartekaritza), 1999an Nafarroan eta 2010ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Osatu gabeko transferentzia eta ondorioz, urriegia enpleguaren inguruko egiturazko neurriak hartu ahal izateko.

Honi gehitu behar zaizkie lan-erreformak, negoziazio kolektiboari egindako erasoak eta pentsioen erreformak ekarri duten inboluzioa lan harremanetan eta babes sozialeko sisteman, gure burujabetza falta areagotu dutenak eta gure menpekotasuna handitu.

Ipar Euskal Herriaren kasuan, eredu askoz zentralistagoa da eta Frantziako estatuaren esku daude langileei eragiten dieten erabaki nagusiak. 2004tik aurrera sortu zen lurraldeko hitzarmen kolektiboak negoziatzeko aukera "CPL" deitutako bidez. Beranduago, lurralde egituratze berriak aurrera pauso handia ekarri zuen espazio propioaren aitortzan, baina lan eta pentsioen arloko eskuduntzek mugatuak izaten jarraitzen dute.

Guzti horregatik, LABen ulertzen dugu **ez dela nahikoa Gizarte Segurantzaren kudeaketaren transferentzia soilik**. Lehen urrats bat da, baina hasiera batetik egon behar da ereduaren trantsizio batean oinarritua.

Gizarte Segurantzaren Euskal Institutua aktibatzea proposatzen dugu, Espainia eta Frantziako Gobernuak hartutako erabakien kudeaketara mugatu beharrean, langileen alde egingo duten eta euskal pentsiodunen beharrezkoak bermatuko dituzten politikak egiteko bokazioa izango duena.

Institutu honen funtzio nagusien artean honakoak kokatzen ditugu: **ezkutuko ekonomiaren iruzurraren kontrola**, pentsio sistema publikoarentzat baliabide garrantzitsuak galtzea ekartzen duena; **lan munduan genero-arrakala gainditzeko estrategia eraginkorra; eta prestazioen benetako zenbatekoa ezagutzea**, ere berean, pentsioak en modu indibidualizatuan osatzea erraztuko duena eta ez bizikidetzaren unitateen bidez.

> Akordio soziopolitiko eta mugimendu sozial eta sindikalen arteko aliantza pentsio eredu berriaren alde

Pentsioen sistema publiko eta propiorantz aurrera egitea ahalbidetuko digun ekintza politiko-instituzionala indartzeko funtsezkoa da eguneroko eta premiazko eskubideen aldarrikapena lotzea Euskal Herriko estatus politiko baten eraikuntzarekin. Hau da, egungo eskuduntzak zabaltzea eta Euskal Errepublikaren sozialista eta feministarantz bide berriak zabaltzea.

Egungo premiei dagokienez, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren eskariak babesten ditugu hala nola pentsio publiken murrizketak derogatzea, gutxieneko pentsioa berehala hobetzea, soldata arrakalarekin amaitzea eta soldata-pentsio birjartze tasa hobetzea eta Pentsio Sistema Publikoaren finantza bideragarritasuna bermatzea kalitatezko enplegua sortu eta soldatak modu esanguratsuan hobetzeko politikekin. LAB aliatua izango da bide honetan.

Era berean, uste dugu Euskal Herrian, pentsiodunen mugimendu indartsuaz gain, badagoela eredu propioaren alde borrokan egiteko gehiago sindikal nahikoa, borroka hau babesten duen ehun soziala eta *Haritik* honetan jasotako norabidean aurrera egiteko prest dagoen mugimendu politikoa.

Ondorioz, beharrezkoa da dinamika eta aliantzak sortzea **partekatua izango den agenda soziala osatzeko**, lan harremanen esparrua eta babes sozialeko sistema propioaren eraikuntza jarriko dituen bere ekintza politiko, sindikal eta sozialaren ardatzean.



Era berean, konfluentzia honek antolaketa sozialaren erdigunean pertsonen bizitzak eta planetaren zaintza jarriko dituen sistema baterantz aurrera egitea ahalbidetuko duten **akordio instituzional zein intersektorialak** ekarri behar ditu. Hemen egiten dugunez lan, hemen erabaki behar dugu eta hemen dugu Madrilen eta Parisen posible ez diren eraldaketa sakonak bultzatzeko indar korrelazioa eta borrokarako gaitasuna.

4. LABen aldarrikapenak

4.1. Murrizketak lehengoratu eta pentsio publikoak hobetu

> ERRETIRO ADINA

- Erretiro adina berehala lehengoratu 67 urtetik 65era Hego Euskal Herrian eta 64tik 62ra Ipar Euskal Herrian, 60 urterekin erretiratzeko gure proposamenerantz aurrera egitea ahalbidetuko diguna (erretiroranzko trantsizioa 58rekin hasita).

> KALKULUA ETA KOTIZAZIOAK

- Lan egindako egun bakoitzagatik egun bat kotizatu.
- Zenbaketarako aldiak laneko bizitza osoaren barruko 5 urte onenak hartzea.
- Gehienezko kotizazio topeak kendu eta pentsioetara funts gehiago bideratuko dituen politika fiskal berria garatu.
- Azpi-kotizazioari aurre egin, "autonomo faltsuena" eta ezkutuko ekonomiarenari barne.
- Kotizazio hutsuneak: zaintzara bideratutako denbora %100ean osatu behar da.

> GUTXIENEO PENTSIOK

- 1.080 eurotako gutxieneko pentsioa berehala ezarri 1.260 eurotako lortzeko (gutxieneko soldataren %90) 14 pagatan.
- Euskal LGSrekiko erreferentzia eta ez bizikidetzaren unitate edo pobrezia arriskuaren indizeekikoa.
- Zor patriarkala ordaindu eta kotizaziopekoa izango ez den gutxieneko pentsio duina bermatu zaintzen aritu izanagatik enplegura sarbidea izan ez dutenei.

> ALARGUN PENTSIOK

- Alargun pentsioa zaintzagarriko pentsio osagarri batekin ordezkatu. Aldi baterako neurria, baina pentsio indibidualizatua ziurtatuko duena (propioa), familia-loturetatik aparte, eta kotizaziopeko gutxieneko pentsioaren besteko gutxieneko zenbatekoa izango duena.
- Bien bitartean, alargun pentsioaren zenbatekoa gutxieneko pentsioarekin (gutxieneko soldataren %90), bere desagertzerantz urratsak emanez.

> ZAINZA DUINDU

- Astean 30 orduko gehienezko lanaldia eta 20 orduko gutxienekoa guztiok zain dezagun.
- Zaintzagarriko prestazioak handitu.
- Egiturazko zerbitzuak publikatu eta zerbitzu osagarrietako lan-baldintzak hobetu klausula sozialak sartuta.

> ETXEKO LANGILEAK

- Etxeko Langileen Sistema Berezia desagerrarazi.
- Etxeko lanaren barruko erregimena desagerrarazi.

> LANGILE MIGRATUAK

- Beste lurralde batzutatik iritsitako langileen erregularizazio eskubidea ezarri urbeteko lan kontratuaren eta lehen urte honetan lan-kontratua izateko eskubidearen bidez.
- Langile guztien unibertsitate-ikasketen homologazioa erraztu langile hauek aurre egin behar dioten prekarizazio sistematikoa zailtzeko.
- Aldebiko akordioak beste herrialde batzuekin, langile migratuek eta euskal diasporak euren kotizazio guztiak kontuan hartu ahal ditzaten.

4.2. Hemen lan egin, kotizatu eta erabaki

> ENPLEGU DUINA

- Enplegu duina bermatzeko politika integrala garatu, jatorri, ideologia, sexu-generoa, disidentzia sexuala edo aniztasun funtzionalaren araberrako diskriminaziorik gabe eta lan arloko gaitasun legegilea eta eskuduntza osoak izango dituen.
- Politika pasiboak transferitu, lanerako eskubidea ukatu zaien pertsonen errenta mantentzea bilatzen duten neurrien inguruan ere erabaki ahal izateko.
- 1.400 euroko gutxieneko soldata sustatu 14 pagetan, akordio interprofesional eta klausula sozialen bidez.

> POLITIKA PUBLIKOAK

- Euskal instituzioen gaitasun osoa bermatu zerga- eta aurrekontu-politikari buruzko erabakiak hartzeko.
- Hego Euskal Herriko parlamentuetan pentsio sistema publiko eta propioaren garapena bultzatuko duten legeak onartu, estaldura emango dioten izaera instituzionaleko tresnak eta beharrezko trantsizio politikak barne.
- Zaintza Sistema Publiko Komunitarioko Euskal Sistema unibertsala sortu, zaintza lanak gure jendartearen oinarri demokratizatzaile bezala aitortuko dituen.
- Zaintza Sistema Publiko Komunitarioko Euskal Sistema Babes Sozialerako Euskal Esparruan integratu zaintzak zeharlerro bezala eta ikuspegi ekosozialista eta feminista batetik lantzeko.

> GUTXIENKO PENTSIKAK

- Gutxieneko pentsioak osatu euskal LGSrekiko erreferentzia zuzena bermatuz eta ez bizikidetzaren unitate edo pobrezia indizeekikoa, Gizarte Segurantzaren berehala transferituz. Transferentzia hitzarmenak kudeaketa ekonomikoa eta oinarriko legeriaren garapena barne hartu behar ditu EAE eta Nafarroan.
- Bien bitartean, gutxieneko pentsioak 1.080 euroetaraino osatu ofizioz, horretarako eskubidea duten guztiek gutxienez zenbateko honetako pentsioak jaso ahal ditzaten.

> SISTEMA OSAGARRIAK

- Ez sustatu BGAEak negoziazio kolektiboan.
- Banakako pentsio osagarrien kontrako jarrera eta ez dezatela onura fiskalik izan.
- Sistema osagarri publiko, unibertsal eta berbanatzailea bultzatu.
- Hego Euskal Herrian Euskal Finantza Institutua garatu euren pentsioak osatu nahi dituzten langileen ekarpenak administratzeko.
- Plan eta funts osagarri hauek laneko errenta moduan zergak ordaintzea eta kotizatzea.

> LANGILE MIGRATUAK

- Langile migratuak gehiengoa diren sektoreetan erretiro eskubidearen inguruko borroka espezifikoak artikulatu.
- Atzerritar arloan eskuduntza lortu.

> ZAINZA DUINDU

- Zaintzarako eskubide kolektiboa aitortu.
- Zaintzaren negozioarekin amaitu, privatizatutako zerbitzuen publikazio plan bat martxa jartzearen bidez, euren artean, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Borrokan ari diren zaintza langileen lan hitzarmenak eguneratu.
- Euskal Herriko lehen hitzarmen kolektiboa lortu etxeko zaintzaren sektorean.

ERANSKINA. Lan Harremanak eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua: LABen eredia

LABen arabera Euskal Herrirako pentsio sistema publiko propioa Lan Harremanak eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren eraikuntzaren parte da, gure Programa Sozioekonomikoa oinarritzen den printzipioetan oinarritua. Lehen urratsa autonomien estatu mailako eredia gainditzea da, baina ez soilik eskuduntza berriak izango dituzten estatutuen berritze edo eguneratzearen bidez, estatutu hauek gainditzearen bidez baizik.

45 urte igaro eta gero Gernikako Estatutua eta Nafarroako Hobekuntza ez dira bete, eta euren egiturazko gabeziak ere ez dira gainditu. Kontrara, kutxa bakarra bezalako artefakto kontablea, Langileen Estatutuan egindako aldaketak eta Espainiako estatu mailako oinarrizko legeriaren garapena euskal langileen interesen kontrako norabidean joan dira.

Hortaz, erabakitzeko gaitasun osoa bermatuko duten esparru juridiko-politiko berriak izan behar ditugu, hau da, enplegu eta babes sozialeko gaietan eskuduntza eta gaitasun legegile osoa emango diguten estatus politiko berriak. Jarraian, gure proposamen sozioekonomikoaren ardatzak jasotzen ditugu eta pentsio sistema publiko eta propioarekin duten lotura.

1. Euskal Lan Kodea: enplegu duinik gabe ez dago bidezko pentsiorik

Historikoki, lan kodeek, Hego Euskal Herrian ezartzen den Langileen Estatutuak barne, enpleguaren esparrua soilik aratu dute. Esparru honek ordea ez du lana bere osotasunean hartzen. Azkenenean, badira idatzitako kontratu batek arautzen ez dituen lan asko, ordainduak ez direnak eta kotizaziorik sortzen ez dutenak. Nagusiki bizitzaren zaintzarekin lotutako lanak. Hauek arauturik ez egoteak zuzenean baldintzatzen du zahartzaro bete batekiko eskubidea.

Gabezia honi erantzun eta helburu dugun ortzimugari buruz hasnartzeko, eztabaida zehatzean ekarpena eginez, LABen Euskal Lan Kodearen proposamena osatu dugu, enplegua (kontratu bidezko harremanak) zein lana (lan harremanak) biltzen dituen. Enpleguak eta pentsioak elkarrekin joan behar dutela ulertzen duen Kodea.

> Banaketa hirukoitza eta kotizazio unibertsala

Proposamen honen oinarriaren arabera bizi garen komunitateko kide guztiok daukagu jendarteari gure lanaren bidez ekarpena egiteko eskubidea eta betebeharra, bai modu kolektiboan zein norbanako moduan, jendarte bidezko eta jasangarri bat eraiki eta honi eusteko helburuarekin. Era berean, esplotazioa saihesteko, bidegabekeriak zuzentzeko, aberastasuna banatzeko eta eskubideak zehazteko funtsezkoa da lana arautzea. Hau da, kalitatezko enplegurako eskubidea bermatu Euskal Herrian bizi diren pertsona guztiei, edozein delarik euren sexu-generoa, jatorria, adina, aniztasun funtzionala edo egoera administratiboa. Premisa honetan oinarrituta egiten du LABek bere Banaketa Hirukoitzerako proposamena.

Lana enplegua baino askoz zabalagoa da, baina enplegua eta pentsioaren arteko harremana ezin da bereiztu. Horrela, egungo ereduak ez bezala, **pentsioa izateko eskubide unibertsala aldarrikatzen dugu**.

Bizitzaren egoera guztietan bermatu behar da kotizazioa: enplegua dugunean, Administrazioak enplegua bermatzen ez duenean (honek bere kalteordanagatik kotizatu beharko luke) edo zaintza lanek enplegua etetea exijitzen dutenean (zaintzagatik enplegua etenda dutenek kobratu eta kotizatu egin beharko luketelako).

Pertsona guztiei enplegua bermatu eta kotizazio unibertsalak ziurtatzeak eskubide propio bihurtzen dute erretiro pentsioa. Hau da, pertsona bakoitzaren eskubide indibidual, edozein delarik egin den lanaren izaera edo aukeratutako lotura edo familia-bizikidetzeta mota.

> Gutxieneko soldata eta gehienezkoa pentsioekin lotuta

LABek aldarrikatzen duen Banaketa Hirukoitzaren proposamenean, soldata errenta bezala kontzeptualizatzen da eta doakoak ez diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea ahalbidetuko digu. Pertsona bakoitzak egiten duen enpleguari lotutako "soldata" bezala hauteman arren, enplegu izaerarik ez duten zaintza lanen konpentsazioa ere izango da. Soldata moduan jasoko dugun errenta lan produktibo zein erreproduktiboak egiteagatik jaso dugu konpentsazioa izango da.

Horrela garatu behar dira pentsioak; soldata handiagoa izanda, handiagoa izango da kotizaziorako oinarria, eta honek zehaztuko du etorkizunean erretiro pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den oinarri arautzailea handiagoa izatea, eta ondorioz, pentsioa handiagoa.

Azaldutakoaren arabera, gutxieneko soldatak Euskal Herriko batez besteko lanaldi osoko soldataren %60aren bestekoa izan behar du eta gainera, gehienezko soldata LGSren hirukoitzera mugatu behar da gehienez. Era berean, **LABen aldarrikatzen dugu gutxieneko pentsioak LGSren %100 izatea**, ulertzen dugulako hori dela gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa bizitza duina garatu ahal izateko. Era berean, gehienezko pentsioa ere mugatu behar da gehienezko soldatarekin parekatuz, edo gauza berdina dena, gutxieneko pentsioaren hirukoitzarekin.

> 30 ordutako lanaldia denok zaindu dezagun

Denok erretiro pentsio duina izan ahal izateko, funtsezkoa da gure laneko bizitzan ditugun erantzukizunetara bideratutako denbora modu ekitatiboan banatzea. Horretarako, beharrezkoa da denbora nahikoa eta kalitatezkoa denok zaintza-lanak banatu eta egin ditzagun honek gure erretiroan zigorrik ekarri gabe.

Zalantzarik gabe, honetarako **gehienez 30 ordutara murriztu behar dugu lanaldia** gehienez 5 egunetan banatuta, langileak kaltetu gabe eta soldataren edo erretirora begira kotizatutako egunen murrizketa proportzionalik gabe, izan ere, kotizazioaren zenbatekoa ez da lan egindako orduen arabera kalkulatu behar, kotizatutako egunen arabera baizik.

Funtsezkoa da pertsonen bizitza eta osasuna erdigunean kokatzea atsedena, deskonexioa, laneko eta norbere bizitzaren uztarketa eta denok zaintza lanetan inplikatu ahal izatea bermatzeko. Azken finen, gizonek zaintzeko erantzukizunari ihes egiteak emakumeen* prekarizazioa dakar.

2. Euskal Herrirako Gizarte Segurantzza

Gizarte Segurantzza sistema propio eta nazionalak kudeatuko duen pentsio sistema publiko, solidarioa, kotizaziopekoa eta banaketakoa lortzea da gure ortzimuga estrategikoa.

> Sistema publiko eta benetan solidarioa

Euskal Herriko Gizarte Segurantzza sistemak guztiz publikoa izan behar du eta helburu moduan izan behar du bizi- eta lan-baldintza duinak bermatzea. Finantzazioari dagokionez, Gizarte Segurantzza altan dauden pertsonen kotizazioetan oinarrituta egon behar du, aurrekontu bidezko funtsen bidez ere finantzatua izateko aukerarekin. **Helburua da beharrezko finantzazioa bermatzea soldatak duindu eta kotizaziorako topeak igoz.**

LABentzat, solidario moduan defendatutako "kutxa bakar estatalak" duen helburua erregimen ekonomikoaren elementu garrantzitsu bat (langileen kotizazioak) Espainiako estatuaren eskuduntza eskusiboaren artean mantentzea da. "Nazioaren lurralde ezberdinen arteko elkartasunaren" argudioa erabiltzen da joera pribatizatzailea eta erretirorako eskubidea gero eta gehiago murrizten duen eredu hau izateko posible bakarra, sistemaren pribatizazioa bultzatzen den bitartean. **Espainiako Gobernuaren pentsioen prekaritatearen uniformizazioari elkartasuna deitzen zaio.**

Gizarte Segurantzaren elkartasunerako beharrezkoa da langileek gaitasuna izatea bizi diren eta lan egiten duten lurraldean sortutako aberastasunari lotutako erabakietan parte hartzeko. Euren lanarekin parte hartzen duten lurraldearen ehun sozial, ekonomiko eta politikoarekin garapenarekin konpromisoa duen klase elkartasuna, ez soilik enpleguaren munduan, esparru komunitario eta auzo mailakoan ere bai.

> Legezko adina aurreratu eta erretirora trantsizioa

Laneko erretiroa atzeratzeko etengabeko neurrien aurrean, **erretiroko legezko adina 60 urterekin** izatea defendatzen du LABek eta erretiro arrunta graduala izango da: 58 urte egitean, enplegua duten langileei txandakako edo errelebo kontratua egin behar zaie 60 urterekin erretiroa guztiz hartu arte.

Bi urteko denbora tarte honen helburua langile berriei lanpostua betetzeko behar duten ezagutza bermatzea da, honela enpleguaren banaketaren eskari historikoa erantzunez. Lehen urtean %60ko erretiroa izango dute langileek eta bigarren urtean %80koa.

> Erretiro pentsioen kalkulua

Euskal Herrirako gizarte segurantzaren sistema propioa defendatzen dugu. Honetan, edozein delarik lanaldi mota, kotizazioaren konputoa ez da egingo lan egindako orduen arabera, kotizatutako egunen arabera baizik. **Hau da, lan egindako egun bakoitzagatik egun bat kotizatuko da.**

Laneko bizitzaren 5 urte onenak kontuan hartuta kalkulatu behar da pentsioen zenbatekoa eta gure lurraldeko **bizitzaren kostuaren arabera eguneratu** behar da. Azkenik, ezinbestekoa da kontuan izatea **zaintzagarriko hutsuneak eta hauek %100ean osatzea pentsio arruntean**, bizigarritasunari egindako ekarpena kontuan hartuz.

2. Zaintzaren aitortza eta banaketa ekitatiboa

Zaintza da bizitza duina eraikitzeko oinarria. Ez da zerbait puntuala, beharrezkoa delako bizitzaren momentu eta esparru guztietan. Ezinbestekoa da gure gorputz eta komunitateei eusteko, hau da, bizitza, ongizatea eta osasunari eusi eta kudeatzeko. Beharrezkoa da argi izatea **zaintza eskubide objektibo bat dela eta bere unibertsaltasuna bermatu behar dela.**

> Zaintzen funts publiko eta solidarioa

Pentsioen genero arrakala erazteko soldaten genero arrakala erazi behar da. Horretarako, **zaintzen funts publiko eta solidarioa** jarri behar da martxan, pertsona guztiek euren laneko ibilbidean egon daitezkeen zaintza beharrak asetzeko prestazio bat jaso ahal dezaten.

Funts publiko eta solidario hau **hiru bidetatik finantzatuko da; langileek, patronalek eta instituzioek aurrekontu bidez**. Guztiok behar dugu zainduak izatea, hortaz, komunitate osoak eutsi behar dio zaintza sistemari, baita ekonomikoki ere. Gainera, ezin da familia loturarik exijitu zaintzen duten eta zainduak direnen artean, eta binkulogramak⁷ erabili behar dira.

> Euskal Zaintza Sistema Publiko-Komunitarioa

Azalduko guztiagatik, bada garaia lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko dikotomia gainditzeko eta zaintza bizitzarako ezinbestekoa dela onartzea. Horretarako, LABen bat egiten dugu Euskal Herriko Mugimendu Feministaren aldarrikapenarekin eta **zaintzarako eskubide kolektiboaren alde egiten dugu**. Hau da, pertsona guztiek zaindu eta askatasun eta konpromiso baldintzetan zainduak izateko eskubidearen alde. Eskubide

⁷ Binkulogramak odoleko familia eta/edo esparru legaletik harago lotura emozional, afektibo eta soziala dugun pertsona guztien mapeoa dira. Afiliazio nuklear eta odolkidetasunekoaren eredu patriarkalarekin apurtzea dakarte, zaintzen eredu emanzipatzailea aitortzearekin batera.

kolektiboa eta ez indibiduala, sakon sustraitua banaketa hirukoitzaren gure proposamenean, eta Euskal Zaintza Sistema Publiko-Komunitarioaren bidez zehaztuko dena.

Zaintzaren sektorea despribatizatu, desfamiliarizatu, desfeminizatu eta bere ratioak eta lan-baldintzak hobetzeko **sistema publikoa**. Arlo publikotik ziurta dadin finantzazioa, kalitatea, kogestioa eta langileen parte-hartzea. Era berean, **sistema komunitarioa**, bizitza amankomunaren logikan garatzen diren zaintzak aitortzeko eta auzokideen eta bizitzako eta laneko kideen artean artean erantzukidetasuna sustatzeko. Azkenik, **euskal sistema**, modu efektiboan botere publikoak gure lurraldeko botere komunitarioekin lotzeko, Babes Sozialerako Euskal Esparruan ere txertatuz.



LAB